



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Irauntza, Iholtza.

Auzoa, udalerrria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren behe solairuan, ipar-mendebaldeko bazterrean. Lehen solairura igotzeko eskaileren ondoan.

Jabea: Ollo familia.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 20 bat urte arte, etxerako bakarrik.

Zenbait datu:

Egungo erabilera: Ez du erabilerarik. Trastelekua.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Hormigoizko askaren erdian zutik jarritako ardatz hariztatuak eta bertan gora eta behera egiten duen buruak osatzen dute. Bolante baten bidez eskuz eragindako torloju amaigabea biratuz mugitzen da koroa-horzduna eta azpialdetik zanpaketarako loturik duen zurezko urka.

Dolarearen osagarriak:

- Bi inertzia-bolantedun matxaka, goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin.
- Sagardo botilak garraiatzeko egurrezko kaxak.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

Argazkiak: 03.01, 03.02, 03.03, 03.04.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

OHARRAK

- Sagarrak saltzean lortzen duten diruarekin sagardo botilak erosten dituzte gaur egun.

GALDETEGIA

Informatzailea: Ollo familia.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 15a